**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

| A – 42/09 | FA: 0419 LI | 2019 |
|---|---|---|

# FORU AGINDUA

Donostia/San Sebastián, 2019ko abenduaren 17a

Gipuzkoako Foru Aldundiak Kudeaketa Plan Estrategikoa (KPE) egin zuen 2015-2019 legealdian, eta bertan jasotzen ziren, batetik, 2015-2019 aldirako Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa, ildo estrategiko eta jarduera ildoen helburu nagusiak, eta, bestetik, erakunde osoaren ekintza bideratzeko kudeaketa prozedura, ezarritako helburuak betetzeko.

En la legislatura 2015-2019 la Diputación Foral de Gipuzkoa elaboró el Plan Estratégico de Gestión (PEG) en el que se recogían, por un lado, los objetivos prioritarios de la gestión, las líneas estratégicas y de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el periodo 2015-2019, y por otro lado, el procedimiento de gestión para orientar la acción del conjunto de la institución hacia el cumplimiento de los objetivos establecidos.

Oinarrizko orientazio estrategiko hori oro har gobernuaren eta departamentuen jarduera gida izan da. Plana Foru Aldundiaren lidergorako eta gobernu jardueraren orientaziorako tresna nagusia izan da, eta tresna bizi, dinamiko eta parte-hartzaile gisa jaio zen; era berean, lortu beharreko helburu estrategikoak, departamentuetako jarduera planak eta horiek ezartzea eraginkorra izatea ziurtatuko zuten mekanismoak jaso zituen. Planak sektoreko dinamika ezberdinen artean koherentzia handiagoa sustatzen zuen, eta soil-soilik sektorekoak ziren interpretazioak gainditu zituen lurralde logika bat egotea bultzatzen zuen.

Esta orientación estratégica básica ha constituido la guía de actuación tanto del ejecutivo en su conjunto como de los diferentes departamentos. El Plan, que se configuró como el principal instrumento para el liderazgo y la orientación de la acción de gobierno de la Diputación Foral durante la legislatura, nació como un instrumento vivo, dinámico y participativo que recogía los objetivos estratégicos a alcanzar, los planes de actuación departamental y los mecanismos de gobernanza que asegurasen la eficacia en su implementación. El Plan promovía una mayor coherencia entre las diferentes dinámicas sectoriales e impulsaba la existencia de una lógica territorial superadora de interpretaciones exclusivamente sectoriales.

Bestalde, KPEri lotuta, abian jarri zen Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua (EBA) bultzatzeko proiektua, zeinak, Gobernu Onaren esparruan, indartu nahi dituen plangintza, ebaluazio eta kontu-emate prozesuak, helburuen araberako kudeaketan fokua jarriz.

Por otro lado, y ligado al PEG, se puso en marcha el proyecto para impulsar lo que se ha denominado Presupuesto Orientado a Resultados (EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua), que en el marco del Buen Gobierno, pretende fortalecer los procesos de planificación, evaluación y rendición de cuentas, poniendo el foco en la gestión por objetivos.

Testuinguru horretan, legealdiko esperientzia oso emankorra izan da plangintza prozesuak indartzeari dagokionez, eta Gipuzkoako Foru Aldundia posizio senda batean kokatzen du, hasitako bideari jarraitzeko. Hori guztia, Foru Aldundi osoan 2015- 2019 legealdian zehar hedatzen joan den Aurrerabide kudeaketa ereduaren barruan.

En este contexto, la experiencia de la legislatura ha sido muy fructífera en lo que se refiere al fortalecimiento de los procesos de planificación. Lo que sitúa a la Diputación Foral de Gipuzkoa en una posición consistente para proseguir con el camino iniciado. Todo ello, en el marco del modelo de gestión Aurrerabide que se ha ido desplegando a lo largo de la legislatura 2015- 2019 en el conjunto de la organización.

Era berean, 2015-2019 legealdian Etorkizuna Eraikiz ekimena jarri da abian. Gauzak egiteko modu berriak identifikatzeko, gobernantza

Asimismo, en la legislatura 2015-2019 se ha puesto en marcha la iniciativa Etorkizuna Eraikiz. El esfuerzo para identificar nuevos

eredu berriak bilatzeko eta Foru Aldundiaren eta herritar eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko harreman eredu berriak identifikatzeko ahaleginaren ondorioz, "Etorkizuna Eraikiz" ekimen garrantzitsua ezarri da. Ekimen hori, berez, lurraldeak etorkizunera begira planteatuta dituen erronkei ematen dien erantzunaren katalizatzaile bilakatzen ari da.

Etorkizuna Eraikiz ekimenak esperimentazio aktiboko ekitaldi bat garatu nahi du lurraldeak dituen erronka nagusiei buruzko proiektuen bitartez. Gipuzkoako Foru Aldundiak gogoeta hori lurraldeko eragileekin batera egin nahi du, eta bere asmoa da gogoeta horrek balio dezala lurraldearen etorkizun ekonomiko, soziala eta politikoa bermatuko duten erronka estrategikoak identifikatzeko eta politika publikoak eraikitzeko. Eragile anitzeko gogoeta hori bultzatuz lortu nahi dena da Gipuzkoa izan dadila ez bakarrik bere etorkizunari aurre egingo dion lurraldea, baizik eta adostasunera irekitako jarrera proaktibo batetik abiatuz etorkizun hori sortu eta hobetuko duen lurraldea (Etorkizuna Eraikiz). Gogoeta, ekintza, esperimentazioa eta lankidetza dira programa berritzaile horren oinarriak. Gobernantza ireki eta lankidetzako eredu baten esparruan kokatzen da, herritarrak eztabaida publikoan sartzen dituena eta partaidetza horren eraginkortasuna, efizientzia eta aniztasuna bilatzen dituena.

Horrek eskatzen du kudeaketa kultura aldatzea, jarraipena egiteko eredu bat zehaztuz, koordinazio organoak egokituz, eta eredu berriaren araberako erantzukizunak eta eginkizunak esleituz.

2019-2023 legealdi berrian jarraipena eman nahi zaio eta indartu egin nahi da irekitako bide hori. Dagoeneko ez da nahikoa ohiko zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzea, gobernuek egokitu egin behar dute, aldaketa ekonomikoei eta gizartearen behar berriei erantzuteko. Egoera horretan, gobernu taldearen hauteskunde programetako ikuspegitik eta konpromisoetatik eratorritako langintza eta zuzendaritza estrategikoa funtsezko tresnak bihurtzen dira lurraldea kudeatzeko, eta nahitaezkoak dira erronkei aurre egiteko, lurralde ereduaren ikuspegi partekatua zehazteko, lehentasunak ezartzeko, eta horien ezarpenak dakarren aldaketa gidatzeko.

modos de hacer las cosas, nuevos modelos de gobernanza y de relación entre la ciudadanía, los agentes sociales y económicos y la institución foral ha traído como consecuencia el establecimiento de la potente iniciativa "Etorkizuna Eraikiz", que en sí misma se está convirtiendo en el catalizador de la respuesta del territorio a los retos de futuro que el mismo tiene planteados.

Etorkizuna Eraikiz quiere desarrollar un ejercicio de experimentación activa a través de proyectos sobre los retos fundamentales del territorio. La Diputación Foral de Gipuzkoa quiere hacer esta reflexión de modo compartido con los agentes del territorio y pretende que la misma sirva para identificar los retos estratégicos y construir las políticas públicas que garanticen el futuro económico, social y político del territorio. El impulso de esta reflexión multiagente pretende hacer de Gipuzkoa un territorio que no se limita a afrontar su futuro, sino que lo crea y perfecciona (Etorkizuna Eraikiz), desde una actitud proactiva y abierta al consenso. Reflexión, acción, experimentación y colaboración son las bases de este programa innovador que se inserta en el marco de un modelo de gobernanza abierto y colaborativo, que incorpora a la ciudadanía a la deliberación pública y que busca la eficacia, la eficiencia y la pluralidad de esa participación.

Todo lo cual implica un cambio en la cultura de gestión, que se ha soportado en la definición de un modelo de seguimiento, en la adecuación de los órganos de coordinación y en la asignación de responsabilidades y roles acordes con el nuevo modelo.

En la nueva legislatura 2019-2023 se pretende dar continuidad y reforzar el camino iniciado. Ya no basta con prestar eficientemente los servicios habituales, sino que los gobiernos deben adaptarse para dar respuesta a los cambios económicos y a las nuevas necesidades sociales. En este escenario, la planificación y la dirección estratégica, derivadas de la visión y los compromisos electorales del equipo de gobierno, se convierten en herramientas fundamentales para la gestión del territorio, imprescindibles para afrontar los retos, así como para definir una visión compartida del modelo de territorio, establecer prioridades, y conducir el cambio que supone su implantación.

Ondorio horietarako, Diputatuen Kontseiluak, 2019ko azaroaren 12an egindako bilkuran, "2020-2023 Plan Estrategikoa" onartzeko erabakia hartu zuen. Plan Estrategikoa legealdiko jardueraren ardatz nagusia da eta legitimitate demokratikoaren adierazpen gorena, hauteskunde prozesutik ateratako gobernu taldearen erabakia jasotzen baitu.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat jotzen da aholkularitza eta idazkaritza teknikoko zerbitzuak kontratatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Ekonomia Sustapeneko eta Berrikuntzako eta Nazioartekotzeko Zuzendaritza Nagusien 2019-2023 Plan Estrategikoa egiteko, hura izango baita foru gobernuak arlo horietan legegintzaldi honetan egingo duen ekintza bideratuko duen tresna.

Horretarako, Departamentuko Idazkaritza Teknikoak kontratazio hori arautuko duen baldintza teknikoen agiria idatzi du. Zerbitzu horren lizitazio aurrekontua 100.000,00 euro da gehi %21eko BEZa, guztira 121.000,00 €. Kontratua gauzatzeko epea, 2020ko abenduaren 30era artekoa izango da. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 euro da, gehi BEZa, hala baitio 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 101. artikuluan.

Egokia ikusten da lanak talde berak egitea; horregatik baztertu da sortaka banatzeko aukera.

Lanen zenbatekoa ikusirik, bidezkotzat jotzen dugu haren kontratazioa prozedura irekiaren bidez egitea, hala aurreikusten baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 131.2, 156 eta hauekin batera doazen artikuluetan.

Kontratazio espedientearen tramitazio administratiboa errazte aldera, eta espediente hori zerbitzuak emango diren urtearen aurreko aurrekontu ekitaldian hasiko denez, aldez aurretik izapidetuko da, horretarako bide ematen baitute 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 117 artikuluan, eta abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteak aldez aurretik izapidetzeari buruzkoak, 3. artikuluan.

A tal fin, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el día 12 de noviembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el "Plan Estratégico 2020-2023", plan que constituye el eje vertebral de actuación durante la legislatura y es la máxima expresión de la legitimidad democrática al recoger la decisión del equipo de gobierno resultante del proceso electoral.

En este contexto, se considera necesario contratar los servicios de asesoría y secretaría técnica para la elaboración del Plan Estratégico 2019-2023 de las Direcciones Generales de Promoción Económica y de Innovación e Internacionalización del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será la herramienta que oriente la acción del gobierno foral en estas áreas durante la presente legislatura.

A tal efecto, la Secretaría Técnica del Departamento ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 100.000,00 euros más IVA (21%), total 121.000,00 € y con un plazo de ejecución hasta el 30 de diciembre de 2020. El valor estimado del contrato a los efectos del artículo 101 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público es de 100.000,00 euros más IVA.

Se considera que los trabajos deben realizarse por el mismo equipo por lo que no se estima su división por lotes.

Dada la cuantía de los trabajos se considera procedente acudir al procedimiento abierto, según lo previsto en el artículo 131.2, 156 y concordantes de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

A fin de agilizar la tramitación administrativa del expediente de contratación, y dado que el mismo se inicia en el ejercicio presupuestario inmediatamente anterior a aquél en que va a materializarse la prestación, el expediente de referencia va a ser objeto de tramitación anticipada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 117 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y en el artículo 3 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Hori guztia ikusita, eta ados egonik, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak

**EBATZI DU**

**Lehenengo.- Onartzea** zerbitzu honen kontratazio espedientea: ***GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUKO EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA BERRIKUNTZAKO ETA INTERNAZIONALIZAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIEN 2019-2023 PLAN ESTRATEGIKOA LANTZEKO AHOLKULARITZA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOA (A17/19-SE/ST).*** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 100.000,00 euro da gehi BEZari dagozkion 21.000,00 euro, guztira 121.000,00 euro eta gauzatzeko epea urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 30 artekoa da.

**Bigarren.**- Onartzea aipatutako zerbitzuaren kontratazioa arautu behar duten preskripzio teknikoen agiriak eta administrazio klausula partikularrak.

**Hirugarren.-** Espedientea aurrez tramitatzea, kontuan hartuta, beti ere, kontratua esleitu ahal izateko ezinbestekoa izango dela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020ko aurrekontuetan kreditu egoki eta nahikoa egotea, kontratazio horretatik datozen obligazioei aurre egiteko.

**Laugarren.-** Kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profilean.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Visto todo ello, y considerado conforme, este Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

**RESUELVE**

**Primero.- Aprobar** el expediente para la contratación de servicios: ***ASESORÍA Y SECRETARÍA TÉCNICA PARA LA ELABORACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO 2019-2023 DE LAS DIRECCIONES GENERALES DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y DE INNOVACIÓN E INTERNACIONALIZACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE PROMOCION ECONOMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL (A17/19-SE/ST),*** con un presupuesto base de licitación de 100.000,00 euros más 21.000,00 euros en concepto de 21% de IVA, en total 121.000,00 euros y con un plazo de ejecución hasta el 30 de diciembre de 2020.

**Segundo.-** Aprobar los pliegos de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas particulares que han de regir la contratación del citado servicio.

**Tercero.-** Tramitar anticipadamente el expediente, quedando condicionada la adjudicación del contrato a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2020, para hacer frente a las obligaciones derivadas de dicha contratación.

**Cuarto.-** Disponer la apertura de la licitación por el procedimiento abierto para la adjudicación del contrato y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, a partir del día siguiente al de su notificación.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi HILABETEKO epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka eta baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta Diputada Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer previa y potestativamente el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que se hayan recibido o puesto a disposición. En ambos casos no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FORU DIPUTATUAK,

Izptua.: Imanol Lasa Zeberio